

Maria Mikaela Dorronsoro Echaveguren (Sarobekoa)

- 1876/09/09an jaioa Abaltzisketan.
- 1954/02/01ean hil zen Abaltzisketan.
- Amezketako Juan Bautista Goicoechearekin ezkondu zen. Hau 1938an hil zen.
- Larraitzen panderoa jotzen zuen eta kantatu, batzuetan bakarrik eta beste batzuetan soinujolearekin. Zaldibiako Arresenean ere kantatzen omen zuen.

Josefa Ramona Larreta Zubeldia

- Abaltzisketan jaioa zen 1868/09/04ean.
- Abaltzisketan hil zen 1955/10/17an.
- Abaltzisketan, eliza-atzean, aritzen zen Mikaela Dorronsororekin batera, “Bezperetatik” atera ondoren, Mikaelak panderoa jo eta Josefak kantatu.
- Asko gustatzen omen zitzaion kantatzea.

Francisco Zubeldia Goya

- Poncianoren eta Nicolasen anaia.
- Joaquin Maria Zubeldia Aguirre eta Ramona Goya Catarainen semea.
- Abaltzisketan jaio zen 1883/08/07an.
- Abaltzisketan hil zen, 73 urterekin, 1956/10/22an.
- Ordiziako edo Beasaingo fraideekin egin zituen oinarrizko ikasketak eta musikakoak.
- Abaltzisketako elizan, koruan, kantatzen zuen, ospakizun eta funtzio guztietan.